

..... KO UDALARI

BIZTANLEEN UDAL ERROLDA

Gaia: ERROLDATZEKO BIZILEKURIK EZ DUEN PERTSONA ERROLDATZEKO eskaera.

....., adinez nagusia, ID zk eta jakinarazpenetarako helbidea:, toki-administrazio honetan AGERTU NAIZ ETA DIOT:

- Udalerri honetan bizi naiz / / , egunetik, erroldatze-ondorioetarako adierazi beharreko helbiderik gabe, zeren (adierazi X-rekin bidezkoa dena):
 - Ez daukat helbide finkorik.
 - Bizileku finkoa izanik, ez dut titularraren baimenik halakotzat jotzeko.
- Ezin dudala bizi naizen etxebizitza frogatzen duen dokumenturik aurkeztu. Horrek ondorio negatiboak ekarriko lizkidake, eta ezin dut aurre egin.
- Ez dudala alokairuko edo azpierrementamenduko etxebizitza edo logela baten okupazio-kostua ordaintzeko behar diren baliabide ekonomikorik.
- Ez daukat kosturik gabeko ostatu egonkor bat eman diezadakeen gizarte-sare lagungarririk.
 - Udaleko Gizarte Zerbitzuetara data honetan / / jo dudala nire egoera jakinarazteko.
- Erroldatuta egon gabe, ez dut oinarrizko osasun- edo gizarte-prestaziorik jasotzeko aukerarik, eta horrek nire gizarte-bazterkeriako egoera eragiten eta betikotzen du.

OINARRI JURIDIKOA

1. Europako Parlamentuaren 2014ko urtarrilaren 16ko Ebazpenak, etxerik gabeko pertsonentzako EBren strategiari buruzkoak (2013/2994 (RSP), honako hau ezartzen du kontuan hartutakoetan:

D) Kontuan hartu da etxerik eza dela pobrezia- eta gabezia-modurik muturrekoena, eta azken urteotan larriagotu egin dela ia estatu kide guztietan;

N) Kontuan hartu da etxerik gabeko pertsonen arazoa konpontzeko berehalako erantzukizuna estatu kideena dela, eta, bereziki, eskualdeetako eta tokiko agintariena, eta EBren strategiak eginkizun osagarria izan behar duela;

Q) Kontuan hartu da pobrezia ez dela delitua, eta etxerik eza ez dela ez delitu ez bizi-aukera

(...)

14. Eskatzen die estatu kideei berehala amai dezatela etxerik gabeko pertsonen kriminalizazioa, eta alda ditzatela jarraitutako diskriminazio-praktikak, etxerik gabeko pertsonen gizarte-zerbitzuak eta aterpetxeak eskuratzea eragozteko.

2. Europako Gutun Sozialak honako hau jasotzen du:

13. Baliabide nahikorik ez duen pertsona orok du gizarte- eta mediku-laguntza jasotzeko eskubidea.

14. Pertsona orok du gizarte-ongizateko zerbitzuak jasotzeko eskubidea.

3. Estatistikako Institutu Nazionalaren Lehendakariak eta Autonomia Erkidegoen eta Toki Erakundearen Lankidetzarako Zuzendaritza Nagusiak 2020ko apirilaren 17an emandako Ebazpenak, udal-eroldaren kudeaketari buruzko jarraibide teknikoak ematen dituenak, "fikziozko erroldatzea" aurreikusten du kasu berezietan, betiere udalerrian bizilekua izatearen errealitatea gizarte-zerbitzuek egiaztatzen badute.

4. Kasu bereziak direla bizileku finkorik ez dutenenak, baina baita ere, beren egoera sozioekonomikoa dela-eta, bizileku hori aitortzeko aukerarik ez dutenenak eta administrazio publikoaren laguntza eraginkorrik ez dutenenak ere, bizilekuan erroldatzeko duten eskubidea baliatzeko, ostatua eta/edo enplegua galtzeari dagokionez ondorio negatiborik jasan gabe.

ESKATZEN DUT gizarte-zerbitzuek egokitzen jotzen duten helbidean erroldatzea, erroldan alta behar duten eskubide guztiak baliatu ahal izateko.

..... (e) n,..... (e) (a) n.

Sinatua